



Mikel Etxaburu, Ereinen eskutik plazaratu duen liburua aurkeztu zuen egunean. :: usoz

«Poesiak ikuspegi kritikoa lantzeraz eramaten zaitu, horregatik da subertsiboa»

Mikel Etxaburu Osa Poeta

«Eraldatzeko nahiak bultzatuta» idazten du, uste duelako «begiratzetik ikustera» igartzeko kanal egokia izan daitekeela poesia

:: NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. Bost urteren buruan hiru poesia liburu argitaratu ditu Mikel Etxaburu Osak (Ondarroa, 1969). Azkenak, 'Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak' (Erein) 65 orrialdeko poemarioak, Blas de Otero-Bilbo Uria nazioarteko poesia lehiaketa eman zion. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean irakasle den Etxaburuk poesiaz duen ikuspegia ez dago oso urruti sariak omentzen duen poeta bilbotarrak zuenetik.

–Baduzu liburua ulertzeko balio duen marmokei buruzko teoria bat. –Pertsonak binomio diferenteetan sailkatu ahal gara: altuak/baxuak; tontoak/listoak... Nahi beste daude, baina bada bat errokoagoa, estrukturalagoa: marmoka izan edo ez izan marmoka. Ondarrutarra naizen heinean, niretzat marmoka, medusa, ia-ia animalia ere ez da. %99 ura da, eta daukan meritu handiena irautea da. Mamokaren ezaugarri nagusie-

takoa da borondaterik eza. Ez du korrontearen kontra sekula egingo, korrontearekin batera joango da beti. Ez dauka borondaterik ezta izorratzeko ere. Bizi garen gizarteko kide asko marmokak gara. Ez gara gai izango korronte propioak sortzeko, beste norbaitez sortutako korronteen arabera mugituko gara. Nik arreta jarri nahi dut bere burua medusatzat ez daukan horrengan, kontzientzia hori har dezan. Gutxiengo bat izango da beti korronteak sortuko dituen, non gainontzekoak bilduko diren edo ez diren bilduko. Medusa izatea ere zilegi da, alegia, baina kontziente izanda.

–Horrek eskatzen du, ezer baino lehen, korrontearen aurka egitea. –Hori da, eta korrontearen kontra egiteko lehenengo eta behin norberaren korronteak sortu behar dira, gero gainontzekoei aurre egiteko. Edo ez, eroaten uztea ere aukera bat da. Nik uste dut 'abioi moduan' funtzionatzen dugula gure egunerokoan, nahiz eta uste izan kritikoak eta aktiboak garela. Ezartzen dizkiguten marjinak hain dira txikiak non gure askatasun mailak oso urriak diren. Medusa ez izateak hori dakar, nork bere izatearen indartzea.

–Izenburuari heltzen badiogu, lotan gaudela begiak zabaltzea. Nork zabalduko dizkigu begiak, zeuk? –Ez! Nik ez dut inondik inora apro-

piatu nahi inori ezer esateko arrazirik, ezta gutxiago ere. 'Dizkizut'-eko 'nik' hori ez naiz ni, ez da Mikel. Irakurlea da, hartzen duena, eta hartzen duen horrekin irekitzen dizkio begiak bere buruari, edo beste norbaiti.

–Zuk zer eskaintzen diozu orduan, tresna?

–Hori da. Begiratzetik ikusterako trantsizio hori egiteko, kontzientzia hori garatzeko, kanal asko daude, eta nik beste bat proposatzen dut: poesia. Aldarrikatzen dut poesien ikuspegi subertsiboa, ezinbestean behar izango dituelako irakurlea eta idazlea denbora propioa kudeatzera. Munduak aurrera jarraituko du, baina nik badaukat aukera edo beharra, eta eskubidea, tarte bat hartzeko neure buruarentzat, eta ikusteko ea ni benetan egoki nagoen hor kokatuta, ea nik daramadan nire bizitzaren lema. Alde horretatik da subertsiboa poesia eskaintzen duen norberaren denbora kudeatzeko gaitasuna, eramaten zaituelako ikuspegi kriti-

«Nork bere buruarekin dituen elkarrizketa luze eta hipersakon horiek aspertu egiten naute»

ka lantzeraz. Hori, berez, potentzialki arriskutsua da, horren atzetik al daketa etor daiteke-eta.

–Zuri zer ekarri dizu poesia?

–Nire denboren kudaketan eta barne-hausnarketan lagundu dit, eta uste dudanez nire barne-hausnarketak ez direla oso desberdinak zuk izango dituzun horietatik, pentsatzen dut egokia dela poesia pertsonengan inbertitzeko. Kolektiboaren defendatzaile sutsua naiz, baina ez dago kolektiborik ez badago pertsonarik, kolektiboaren ezaugarriak joango direlako pertsona horien bulkadaren arabera. Gure herri honetan zenbat aldiz egiten den hitz herriari buruz, jakin gabe askotan zertaz ari garen hitz egiten. Herri bat pertsonen osatzen dute, eta ezinbestean pertsonen buruz hitz egin behar da. Buru kritikoa behar direla uste dut gizarte aurrerakoi bat egiteko.

–Begiak irekita, egunerokotasunari lotutako errealtate jakin batzuei erreparatzen diezu. Hurbila da alde horretatik zure poesia.

–Nork bere buruarekin dituen elkarrizketa luze eta hipersakon horiek aspertu egiten naute. Horrek ez du esan nahi kategoria literario handikoak ez direnik, baina ni saiatzen naiz etengabe hartzailea kontuan hartzen, idazten dudalako eraldatzeko nahiak bultzatuta, eraldaketa prozesuaren ikuspegi subertsibotxo horren baitan, eta norbanakoarengana iristeko ahaleginarekin. Hori bada helburua, nire idazteko molde izan behar da soila, ez erraza baina bai soila, irudi komunetan oinarritua, denok nahiko erraz identifi-

«Poetok, sarri askotan, hartzaileengana iristeko zubiak eraiki beharrezko dinamatu egiten ditugu»

katzeko moduko irudietan. Poemak irakurlearen interpretazioei irekita utzita betiere, ni ez naizelako nor esateko inori zer egin behar duen. Pertxa batzuk eskaintzen dizkiot, non nork bere burua, nahi badu, zintzilikatuko duen. Hori da nire helburu xumea. Badakit neure neurria zein den eta oso pozik nago gainera neurri horrekin, horrela ez baitut inoren belarriak goxatu beharrik.

–Hitz huts, hutsal eta gastatuz gainezka daude garai hauek. Izan daitezke garai onak poesiarentzat?

–Sarritan diogu dena esanda dagoela, ez garela fio, bueltan gatozela..., baina uste dut hori ere badela babesa, begiratzetik ikustera pasatu nahi ez izatea. Gainera, hor nahi gaituzte. Esaten denaren zati handi bat interesgabea da, baina hori ere bada 'abioi moduan' ibiltzea. Zentzu horretan, poesia izan dezake lehen baino sarrera gehiago...

–Poetek, printzipioz, ez diguzue ezer 'saltzen'. Alde horretatik, beste solaskide batzuk baino fidagarriagoak zarete?

–Fidagarriagoak garen edo ez garen ez dakit, baina ez daukagu ezer 'saltzeko', ez dugulako ezer irabazteko, ezta galtzeko ere. Askatasun puntu hori askotan zama izan daiteke, poesia den genero ertsi eta barkartiatatik. Ez du dirurik ematen, arretarik ere ez, genero txikitua da, baina uste dut elementu inportantea dela, eta hori aldarrikatzen dut.

–Pena irakurle gehiago ez izatea...

–Askotan esaten dugu hori, baina geuk ere ez dugu asko laguntzen, eta askotan zubiak eraiki beharrezko dinamatu egiten ditugu. Mota guztietako poesia egin behar da, baina horren zatitxo bat behintzat eman behar zaio zubiak eraikitzeari, eta zubiak eskatzen dute poesia mota jakin bat, helburu jakin batzuei erantzun zuzena.

–Poesia sozialetik hurbil dago poesia duzun ikuspegia?

–Bai, eta nire historia ere bai. Poema batean aipatzen dut oroitzea dela denbora gelditzeko era azkarra, baina oroitzea ez da berriro bizitzea, beste zerbait da. Nire poemek badute ikutu bat poesia sozial horretatik, baina ez ezer berbizi nahi dudalako, ez ezer oroitzen edo errebindikatzen dudalako iraganetik, baizik eta gaur, gero, bihar goizean, ikusten dudalako badirela hainbat injustizia eta hainbat kontu ez nituzkeenak hala ikusi nahi. Ez nago hitz egiten iraganaz, nago hitz egiten egunaz eta etorkizunaz. Zentzu horretan, nire poesian gai sozialak albo batera uztea desegokia izango litzateke. Egunerokoaz ari baldin banaiz, egunero ikusten dudana horretan badaude konponente sozial potentzia duten errealtateak.

–Memoriaren inguruan bat etortzea horren zaila zaigun honetan, lagungarria izan daiteke poesia?

–Ez dut uste iristen denik hori izatera. Gai horretan, poesia asko falta zaigu. Orbanak oraindik supuratzen ari dira neurri handi batean, eta hurbilagoko gauza tangibleez aritzen da jendea. Oroitzapenak, nork ditu bereak, eta denak dira errespetagarriak, baina ezin ditugu berriro bizi, bideratu egin behar ditugu ahal den modurik egokienean, eskubide parametroetan, denontzako nahikotasun parametroetan... Zikatriz horiek tapatzeko tiritak ez dut uste denik, oraingoz, poesia.